


# TXIKITTO

2012ko otsaila

126



**Aratoste  
ONAK  
izan dittugu!**



## Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte  
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

## Erredakzio kontseilua

Ekhi Belar, Koldo Mitxelena  
eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak.

## Administrazioa

Marisol Uriarte.

## Erredakzioa eta maketazioa

Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena.

## Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa,  
Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena.

## Copyright-a

Txikitto!

## Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak  
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak  
diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Otsailaren 27tik martxoaren 9ra **Urkizu** eskolako 4. mailako ikasleek igeriketa izango dute Orbea Polikiroldegian. Martxoaren 7an, 6. mailako ikasleek eskalada egiteko aukera izango dute Elgoibarko Polikiroldegian.



Elurra **Iturburun**. Aurten otsail hotza eta elurtsua daramagu Iturburun; hala ere, klaseak normaltasunez ematea lortu dugu. Horretarako, Udaleko zerbitzuak primeran aritu dira: pala goizero eta arratsaldero pasatu dute gure bidetara garbi laga eta autobusak errez igotzeko. Baina, jakina, denbora izan dugu elurrarekin gozatu eta ondo pasatzeko.

Kaixo lagunok! Hemen gaude berriro ere **Arrateko Andra Mari** ikastetxeko ikasle, irakasle eta gurasoak zuek agurtzeko eta gure berriak kontatzeko asmoz. Hilabete honen hasiera ekintzaz beteta dator eta, horiekin batera, gauza pila bat ikasten dugu.

Lehenengo mailakoak Sanblasak egiten ibili ziren eta 2. mailakoak esnekiekin, euren proiektuen barruan. A zelako sukaldariak!

Ikasle guztiak aukera izan zuten pianojolea eskolan entzuteko eta baita berarekin saio atsegina izateko ere.




Astean behin talde batek irratsaio bat prestatzen du eta eskolako guztiontzat emanaldia egiten dute. Momentu polita izaten da guztiontzat eta eskolako berriak izaten ditugu honen bitartez.

Ateak ere zabaldu genituen eta nahi izan zuten guztiak gure eskola erakutsi eta gurekin goiza pasatzera gonbidatu genituen. Bertan makilajea, karaokea, informatika, erroskilak, txokolatea, taloak, palomitak eta jolasak eta, nola ez, giro aparta izan genuen.




Kaixo, lagunok, **La Salle** ikastetxetik! Oraindik ere San Blas usaina patioan dugula, otsaileko albisteak ekartzen dizkizuegu. Urtero bezala San Blas eguna ospatu genuen eskolan, opilen bedeinkapen eta guzti. Hilabete honetan bakearen astea ospatu dugu baita ere, guraso, ikasle eta irakasleen arteko jaia ospatuz, eskulanak eta abestiak eginez etab. Beste alde batetik, 1. go eta 2. mailakoak zinemara joan ziren otsailaren 15ean 'Olentzero eta iratxoaren jauntxo' filma ikustera.



# DENBORAPASAK

## ANIMALIAK



1. Uretan bizi da, hortz asko ditu.

2. Txikiak dira, zikinkerietan ibiltzen dira eta buztana dute.

3. batzuk etxetan dute eta 4 hanka ditu

4. Ez ditu hankarik eta arrastaka ibiltzen dira

LUCIA BASURCO

## Letra sopa

Aurkitu 5 pertsonen izenak.


A	i	n	h	o	a	g	n
a	r	l	o	p	o	r	s
M	a	i	t	e	b	d	u
b	u	m	t	u	v	w	x
c	l	a	z	y	a	b	c
d	t	r	e	f	g	h	i
e	z	i	j	k	l	m	n
M	a	n	i	a	z	o	r
h	f	a	h	o	p	o	o
p	h	p	r	s	f	u	v
j	r	h	w	x	y	z	a
k	j	k	b	c	d	e	f

Maite  
Ainhoa  
Marina  
Maria  
Iraultza

Jone Urizar



# TXISTEAK



-Zein da Aladinoren akabua?

Genio txarra eukitzea.

**LORENA**

Mutil batek esaten dio amari :

-Ama, eskolan "waka waka" esaten didate, zergatik ?

-Hau Afrika delako.

Pasioan doaz sagutxo bi eta gainetik saguzahar bat igarotzen da:

-Zer da hori? -galdetzen du batek.

-Nire senargaia; pilotua da.



Telefonotik:

-Telepizza, zer nahi duzu?

-Madalenak, ala...?

**OIHANA REÑON**

-Zein da handiagoa, eguzkia edo ilargia?

-Ilargia, gabez irtetzen lagatzen diotelako.

-Zein da hortz gehien daukan animalia?

-Perez arratoia.

**JAIONE LOPEZ**

-Pello, nola esaten da Real Madril txinoz?

-Chin-Chan Pion-Lig.

Bazen behin printze bat hain itsusia, hain itsusia zena, Mari Errauzkine hamarretan itzuli zela etxera.

**IÑAKI FERNANDEZ**

Gizon batek esaten dio besteari:

-Nik ez dut lanik egiten.

-Zergatik? -esaten dio besteak.

-Nire jabeak gauza bat esan didalako.

-Zer esan dizu?

-Kalean zaude!

-Gustatzen zaizkizu zezenak? -esaten dio mutil batek neska bati.

-Bai horixe, asko -esaten du neskak.

-Behia izango zara orduan.

**HEGOI GARATE TEJADA**



- Utzi bakean! -esaten dio soldadu batek besteari-. Ez al duk ikusten emazteari idazten ari naizela?
- Eta zergatik idazten duzu hain astiro?
- Berak ez dakielako bizkorrago irakurtzen!

Emakume bat, platerari begira txundituta, garrasika hasten da:

- Jauna, jauna! Xagu bat... xagu bat dago zopan!
- Mesedez, zaude lasai, Andrea. Ez duzu ikusten itota dagoela?

**BEATRIZ CALVO CACÉRES**



Jaimitoren amak esan zion Jaimitori:

-Etortzen naizenean umea sehaskan egon behar da, oilaskoa suan, urdaiazpiko eta gazta ogitartekoa prest, eta lurra ura eta xaboiarekin garbituta.

Jaimitok kontrakoa egin zuen. Umea laban, ogitartekoa ura eta xaboizkoa, oilaskoa kuan, lurra garbitu gazta eta urdaiazpikorekin etab.

Bere ama etorri zenean esan zion:

- Zer egin duzu, Jaimito!
- Shhhhh! Oilaskoa lo dago!

**IAN BARBARRUBIO**

























# ZURE IRITZIA... NIRE IRITZIA...

Nagusixen eta umien artian desberdintasun haundixak izaten dirala pentsatzen dogu, baiña zer gertauko zan galdera bardiña egiten badetsagu nagusixari eta umiari? Horrenbesteko aldia egongo ei da?

## ***Musikia entzuteko ohiturarik bai? Zein da zure musika talde gustokuenena?***

### **ANGEL MORENO, 42 URTE**

Txikitan Whitney Houston gustatzen jatan, tamalez oin dala gutxi hil dana. Beranak izan ziran erosi nittuan lehen diskuak, baiita Madonnanak be.

### **JONE ZAMAKOLA, 45 URTE**

Gaztia nintzarian The Ramones eta The Cure gustatzen jatazen asko. Kasetian entzuten nittuan, baiña banekan disko-jogaillua be.

### **INES MORENO, 9 URTE**

Badakat musikia entzuteko ohituria, irratixan batez be. Jennifer Lopezen 'On the floor', Michel Teloren 'Ai se eu te pego'... gustatzen jataz.

### **EIDER OJANGUREN, 11 URTE**

Gehixen gustatzen jatazenak Adele, Selena Gomez eta Italo Brothers dira. Ordenadorian eta MP5ian entzuteko ohituria dakat.



## IPOTXA, HARTZA ETA SORGINKERIA

**N**egu gordin batean ama alabak gozo-gozo zeuden beheko suaren inguruan. Kanpoan elurra sendo zegoen. Norbaitek atea jo zuen, kax-kax!, eta neskatoak ireki: hartz bat zen, hotzak gogortzeko zorian zegoen hartz bat.

Hasieran etxekoak ikaratu arren, laster elkarren lagun egin ziren. Alabak kilikili egiten zion sudurrean animalia iletsu hari. Hartz animalia gozoa zen, baina artega zegoen.

-Gustora nago zuekin, baina joan beharra daukat ipotx sorginduek nire ondasun guztiak lapurtu baino lehen. Agur -esan zien etxekoei.

Egun horretan bertan, alaba egurretan joan zen basora eta han ipotx bat ikusi zuen. Bizar luzea zeukan, hain luzea ze zuhaitz batean kateatu zitzaion... Neskatoak askatu egin zuen eta orduan ipotxak zer esango eta: "Utzi pakean mukizu hori". Urrez betetako morrala lurpetik atera eta alde egin zuen.

Hurrengo batean neskatoa azokara zihoala, ipotxa aurkitu zuen berriro. Arrano baten erpeen artean zegoen. Tiraka hasi zen neskatoa izaki ttipi hari lagundu nahian, tira eta tira, bereiztea lortu zuen arte. Ipotxak ordea, eskerrak eman beharrean, inon direnak esan zizkion: "Ume zorri hori! Arropa tarratadaz bete didazu". Zulo batean gorderiko zilar zakutoa hartu eta ospa egin zuen azkar-azkar.

Azokatik etxerakoan ipotxak eta neskatoak berriz egin zuten topo. Une hartan bertan hartz bat atera zen arboladitik eta ipotxari eraso egin zion.

-Aska nazazu! Hezurra eta azala baino ez naiz. Heldu neska eder horri, guri-guri dago eta.

Baina hartzak, di-da, ipotxa akabatu egin zuen. Hartz hura etxean babes eske egondako berbera zen. Ipotxa akabatzeaz bat hartzari larrua erori egin zitzaion eta printze eder bat azaldu zen haren azpian. Ipotxaren urrea eta zilarra printzeari lapurtutakoak ziren, jakina.

Eskatu aitari edo  
amari ipuin hau gaur  
gauean kontatzeko.  
**MEREZI DU...**



# Aratossteak



Lapurra kalitik doa



Poliziak lapurra ikurten du.



Polizia lapurra kartabela eramanen du.



Baina nik ez naiz benetako lapurra.

Kartabela

Mikel S, Ander P y Niren O.